



BEZEROEKIKO HARREMANA

Bezeroekin harremana sortzeko eta sustatzeko hainbat aspektu zaindu beharko ditugu, esate baterako; Eskufem *eskumuturreko feminista* uneoro eguneratuta mantenduko dugu eta eguneratze hauei dagokionez, gure enpresaren oinarrizko jardueretako bat izango da hauek gauzatzea eta planifikatzea produktua erakargarri mantentzeko eta bezeroen interesa ez galtzeko. Puntu hau bereziki lotuta doa gure aplikazioaren diseinuari.

Horretaz gain, arazoan aurrean hauek konpontzeko eta hauei aurre egiteko gai garena erakutsiko diegu gure bezeroei, baliabide eta alternatiba desberdinak adieraziz. Azkenik, eta agian garrantzitsuenak izan daitezkeen aspektua, produktu honen emaitzak ikustea izango da, honako honen erabilgarritasuna egiaztatuz eta produktuak finkatuta dituen helburuak lortzen direla ikusiz.

Aipatutako aspektu horietaz gain, honako produktu honen bitartekari erakunde publikoak ditugula kontuan hartuz (erakundeak, udaletxeak edota auto-defentsa tailerrak), honako hauen laguntzarekin ere erakarriko ditugu bezero berriak, produktuaren berri eman dezaketelako alegia, hauen eskutik ere laguntza jasoaz produktu eta zerbitzuren ebaluazio fidagarri bat egiteko orduan.

Bezeroekin hainbat harreman mota izango ditugu;

Batetik, **laguntza pertsonalekoak**. Bertan, erakunde publikoak izango ditugu, gure produktuaren bitartekari izateaz gain, produktu honek sortutako arazo edota zalantzak argitzeko prest egongo direlako, gure asistentziarekin, noski.

Bestetik, **zerbitzu automatizatuak**. Honako hauek gure produkturako beharrezko aplikazioak sortu eta instalatu edota honako hauetan sortutako arazoak konpontzeko ezinbestekoak izango dira besteak beste, zerbitzu tekniko automatizatu bat, oinarrizko edo ohikoen diren arazoei mezu automatizatuen bidez erantzuten.

Azkenik, **komunitateak**. Gure kasuan, erakunde publikoak (emakunde, udaletxeak...), guztiak prest egongo baitira zalantzak edota arazoak konpontzeko. *Eskufem eskumuturreko feminista* dutenen artean komunitate bat sortuko da, erosleen zalantza eta kezak argitzeko, hau ezin baita modu irekian erantzun.